ZIZURKILGO UDALA

## OHIKO OSOKO BILKURARAKO DEIA

Honen bidez, Ez Ohiko Osoko Bilkurarako deitzen dizut:

Eguna: **2012ko irailaren 25a, asteartea**

Ordua: **19:00**

Tokia: Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoa

### EGUNEKO AZTERGAIAK

**1.- AURREKO UDALBATZARREN AKTAK ONARTZEA, BIDEZKOA BADA (2012.06.21 eta 2012.08.10).**

**2.- EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA SALATZEKO MANIFESTUA.**

**3.- PRESO GAIXOEN ALDEKO MOZIOA.**

**4.- ALKATEAREN DEKRETUAK JAKINARAZTEA (2012/107tik 2012/166ra).**

**5.- 2012ko URRIAREN 21eko EUSKO LEGEBILTZARREKO HAUTESKUNDETAKO MAHAIAK OSATZEA ZOZKETA BIDEZ.**

**6.- GALDE-ESKAKIZUNAK.**

Zizurkil, 2012ko irailaren 21ean.

Alkatea.

## CONVOCATORIA A PLENO ORDINARIO

Por la presente le convoco a la Sesión de Pleno Extraordinario a celebrar:

Día: **25 de Septiembre de 2.012, Martes**

Hora: **19:00**

Lugar: Salón de Plenos de la Casa Consistorial.

### ORDEN DEL DIA

**1.- APROBACION, SI PROCEDE, DE ACTAS DE PLENOS ANTERIORES (21.06.2012 y 10.08.2012).**

**2.- MANIFIESTO PARA DENUNCIAR LA VOLENCIA CONTRA LAS MUJERES.**

**3.- MOCION A FAVOR DE LOS PRESOS ENFERMOS.**

**4.- COMUNICACION DE DECRETOS DE ALCALDIA (del 107/2012 al 166/2012).**

**5.- SORTEO PARA LA FORMACION DE LAS MESAS ELECTORALES PARA LAS ELECCIONES AL PARLAMENTO VASCO DEL 21 DE OCTUBRE DE 2.012**

**6.- RUEGOS Y PREGUNTAS.**

Zizurkil, 21 de Septiembre de 2.012

El Alcalde.

ZIZURKILGO UDALA - ALKATEGOA

Teodoro Hernandorena kalea, 6 - 20159 Zizurkil - Tel.: 943 69 10 12 - Fax: 943 69 32 00 - e-posta: zizurkil@udal.gipuzkoa.net
Elbarrena Auzoan: Aurrera Plaza, 3 - 20159 Zizurkil - Tel.: 943 69 30 66 - Fax: 943 69 36 74 - e-posta: bulegoa@zizurkil.com
www.zizurkil.com

**2012ko IRAILAREN 25ean**
**EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

**ACTA DE LA SESION ORDINARIA CELEBRADA EL DIA 25 DE SEPTIEMBRE DE 2.012**

**Partaideak/ Señores Asistentes:**

**ALKATEA / ALCALDE:**
José María Luengo Zapirain Jauna (Bildu)

**ZINEGOTZIAK/CONCEJALES:**
Eva Usandizaga Mujika (Bildu)
Mª Angeles Lazkano Larrañaga (E.A.J.-P.N.V.)
Nerea Lizarraga Gabirondo (Bildu)
Leire Zubeldia De Esteban (Bildu)
Oscar Martínez Orive (P.S.E.-E.E./P.S.O.E.)
Egoitz Sorozabal Iturain (E.A.J.-P.N.V.)

**IDAZKARIA /SECRETARIO:**
José Ramón Eceizabarrena Garmendia

Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan, bi mila eta hamabiko irailaren hogeita bosteko hemeretzi orduak direnean, Zizurkilgo Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate jaunaren lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren zinegotzien partaidetzarekin. Alaitz Ormazabal Goenaga (Bildu), Aratz Alkorta Irazusta (Bildu), Aitor Sarasua Arruti (Bildu) eta Aritz Esnaola Arruti (Bildu) zinegotziak ez dira etorri.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial, siendo las diecinueve horas del día veinticinco de Septiembre de dos mil doce, se reúne la Corporación del Ayuntamiento de Zizurkil bajo la presidencia del Señor Alcalde y con la asistencia de los Señores Concejales que arriba se citan, no asistiendo los concejales Alaitz Ormazabal Goenaga (Bildu), Aratz Alkorta Irazusta (Bildu), Aitor Sarasua Arruti (Bildu) y Aritz Esnaola Arruti (Bildu)

Lehendakaritzaren aginduz bilkura hasi da eta Idazkariak jakinarazi du berau egin daitekeela legez ezarritako quoruma bertan dagoelako.

Abierta la Sesión de orden de la Presidencia, el Secretario informa que la misma puede celebrarse por concurrir a ella el quórum legalmente establecido.

**1.- AURREKO UDALBATZARREN AKTAK ONARTZEA, BIDEZKOA BADA (2012.06.21 eta 2012.08.10).**

Udalbatzak aho batez erabaki du 2012ko ekainaren 21ean eta abuztuaren 10ean egindako Bilkuraren Aktak onartzea.

**1.- APROBACION, SI PROCEDE, DE ACTAS DE PLENOS ANTERIORES (21.06.2012 y 10.08.2012).**

La Corporación, por unanimidad, acuerda aprobar los Actas de los Plenos celebrados los días 21 de Junio y 10 de Agosto de 2.012

Teodoro Hernandorena kalea, 6 - 20159 Zizurkil - Tel.: 943 69 10 12 - Fax: 943 69 32 00 - e-posta: zizurkil@udal.gipuzkoa.net
Elbarrena Auzoan: Aurrera Plaza, 3 - 20159 Zizurkil - Tel.: 943 69 30 66 - Fax: 943 69 36 74 - e-posta: bulegoa@zizurkil.com
www.zizurkil.com

**2.- EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA SALATZEKO MANIFESTUA.**

Aurkeztutako Manifestua Akta honen I Eranskinean ikusi daiteke.

Ikusi ondoren, Udalbatzak, aho batez, aurkeztutako Manifestua onartu egiten du.

**2.- MANIFIESTO PARA DENUNCIAR LA VOLENCIA CONTRA LAS MUJERES.**

El Manifiesto presentado es el que se refleja en el Anexo I del presente Acta.

A la vista de la misma, la Corporación, por unanimidad, acuerda aprobar el Manifiesto presentado.

**3.- PRESO GAIXOEN ALDEKO MOZIOA.**

Aurkeztutako Mozioa Akta honen II Eranskinean ikusi daiteke.

Hori dela eta Udalbatzak Mozioaren onarpena bozkatu du, emaitza honekin.

- Aldeko botoak: 6 (4 Bildurenak eta 2 E.A.J.-P.N.V.renak )
- Aurkako botoak: 1 (1 del P.S.E.-E.E. /P.S.O.E.rena)
- Abstentzioak: 0.

Beraz, botoen gehiengoarekin, Udalbatzak aurkeztutako preso gaixoen aldeko Mozioa onartu egiten ditu.

P.S.E.-E.E./P.S.O.E.k adierazi du mozioaren aurkako botua emango duela bertan eskatzen den guztia zuzenbideko estatuak eta epaileek hartzen dituzten erabakiek bermatzen dutelako eta beraiek erabaki judizialak onartzen dituztela, indarrean dagoen legedia betetzen dutelako.

E.A.J.-P.N.V. mozioaren alde dago eta gaixo daudenpresoen kasuan legedia betetzea exijitzen dute. Hori lortzeko uste dute nahitaezkoa dela ETAk laister erabat desegiteko urratsak ematea.

Bildu mozioaren alde dago erabat.

**3.- MOCION A FAVOR DE LOS PRESOS ENFERMOS.**

La Moción presentada es la que se refleja en el Anexo II del presente Acta.

Vista la Moción, la Corporación vota la aprobación de la misma, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 6 (4 de Bildu y 2 de E.A.J.-P.N.V.)
- Votos en contra: 1 (1 del 1 del P.S.E.-E.E. /P.S.O.E.)
- Abstenciones: 0.

Por lo que el Pleno de la Corporación, por mayoría de votos, acuerda aprobar las Moción a favor de los presos enfermos.

El P.S.E.-E.E. /P.S.O.E. manifiesta que vota en contra de la moción porque todo lo que se pide en la misma está garantizado por el estado de derecho y las decisiones que toman los jueces y ellos aceptan las decisiones judiciales ya que cumplen la legalidad vigente.

E.A.J.-P.N.V. está a favor de la moción y exigen el cumplimiento de la legalidad en casos de presos enfermos y para lograrlo también consideran imprescindible que ETA de pasos para su pronta disolución.

Bildu apoya totalmente la moción presentada.

Teodoro Hernandorena kalea, 6 - 20159 Zizurkil - Tel.: 943 69 10 12 - Fax: 943 69 32 00 - e-posta: zizurkil@udal.gipuzkoa.net
Elbarrena Auzoan: Aurrera Plaza, 3 - 20159 Zizurkil - Tel.: 943 69 30 66 - Fax: 943 69 36 74 - e-posta: bulegoa@zizurkil.com
www.zizurkil.com

**4.- ALKATEAREN DEKRETUAK JAKINARAZTEA (2012/107tik 2012/166ra).**

2012/107tik 2012/166ra zenbakia duen Dekretuen zerrendaren berri ematen da, 2012ko ekainaren 20tik irailaren 20ra Alkateak sinatutakoak. Jatorrizkoak, Alkatetzaren Dekretu Liburuan jasota daude eta bertan aztertu daitezke.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**4.- COMUNICACION DE DECRETOS DE ALCALDIA (del 107/2012 al 166/2012).**

Se da cuenta del listado de los Decretos nº 107/2012 al 166/2012 firmados por la Alcaldía entre el 20 de Junio y el 20 de Septiembre de 2.012, cuyos originales se conservan y pueden ser examinados en el Libro de Decretos de Alcaldía.

La Corporación se da por enterada.

**5.- 2012ko URRIAREN 21eko EUSKO LEGEBILTZARREKO HAUTESKUNDETAKO MAHAIAK OSATZEA ZOZKETA BIDEZ.**

Zozketa egin ondoren, Hauteskundeetarako Mahaiak III Eranskinean aipatzen diren bezala osatuak gelditzen dira.

**5.- SORTEO PARA LA FORMACION DE LAS MESAS ELECTORALES PARA LAS ELECCIONES AL PARLAMENTO VASCO DEL 21 DE OCTUBRE DE 2.012**

Se realiza el sorteo y las Mesas Electorales quedan formadas tal y como se recogen en el Anexo III de este Acta.

Beste aztergairik gabe, eta hemeretzi orduak eta hogeitamar minutuak direnean, Batzarra amaitu da eta honetaz guztiaz nik, Idazkariak, fede eta kontu ematen dut.

Y sin más asuntos que tratar, y siendo las diecinueve horas y treinta minutos, se levanta la Sesión, de la cual, yo, el Secretario, doy fe y certifico.

**O.I. ALKATEA.** **Vº Bº EL ALCALDE.**

ZIZURKILGO UDALA - ALKATEGOA

Teodoro Hernandorena kalea, 6 - 20159 Zizurkil - Tel.: 943 69 10 12 - Fax: 943 69 32 00 - e-posta: zizurkil@udal.gipuzkoa.net
Elbarrena Auzoan: Aurrera Plaza, 3 - 20159 Zizurkil - Tel.: 943 69 30 66 - Fax: 943 69 36 74 - e-posta: bulegoa@zizurkil.com
www.zizurkil.com

ZIZURKILGO UDALA

# I ERANSKINA -- ANEXO I

## ZIZURKILGO UDALAREN MANIFESTUA

Azken egunotan Udalak herrian gertatu diren emakumeen aurkako eraso batzuen berri zuzena jaso du, zoritxarrez. Idatzi honen bidez, udalak aho batez eta guztiz gaitzetsi nahi ditu gertakizun horiek, biktimei babes osoa erakutsiz.

Bide batez, edozein eratako indarkeriaren aurrean Udalak bere arbuioa ere adierazi nahi du. Emakumeen aurkako eraso zuzenak izan dira azkenak. Ezin dugu ahaztu, zeharka, seme-alabak, familia artekoak eta gertuko lagunak ere egoera latz horien biktima bihurtzen direla. Eta ezin dugu ahaztu, beste era bateko erasoak ere gertatzen direla gure inguruan, gure herrian, bai kalean eta agerian eta baita ezkutuan ere. **UDALAK INDARKERIAZKO JARRERA ETA GERTAERA GUZTIAK ARBUIATZEN ETA GAITZESTEN DITU IRMOTASUNEZ.**

Era berean, udalak jakinarazten du kasu hauetan herritarrei berari dagozkion baliabideak eta babesa eskaintzeko dagoela eta indarkeriazko egoeretan nahastuta dagoen orori laguntza emateko prest.

---

## MANIFIESTO DEL AYUNTAMIENTO DE ZIZURKIL

Estos últimos días, lamentablemente, el Ayuntamiento ha tenido noticia directa de ciertos hechos violentos contra mujeres. A través de este escrito, el Ayuntamiento manifiesta su rechazo unánime y absoluto hacia lo ocurrido, a la vez que ofrece todo su apoyo a las víctimas.

Al mismo tiempo, el Ayuntamiento desea expresar su repulsa hacia cualquier tipo de violencia. Los últimos han sido ataques directos a mujeres. No podemos obviar que, indirectamente, los hijos/as, los familiares y los amigos íntimos también sufren y se convierten en víctimas de esa tremenda situación. Y tampoco podemos olvidar que existen otros tipos de violencia a nuestro alrededor, en nuestro pueblo, tanto en la calle y a la vista de todos como de forma soterrada. **EL AYUNTAMIENTO RECHAZA Y DETESTA TODO TIPO DE ACCIÓN Y ACTITUD VIOLENTA CON ROTUNDIDAD.**

Además de esto, el Ayuntamiento hace saber que pone a disposición de los ciudadanos que se encuentren en estas circunstancias los recursos y la protección que tenga a su alcance y que apoyará a cualquiera que se vea inmerso/a en situaciones de violencia.

# II ERANSKINA

ZIZURKILGO UDALA

ZIZURKILGO UDALA
2012 IRA. 20
SARREREN ERREGISTROA
Zenbakia 970

## PRESO GAIXOEN ESKUBIDEEN ALDEKO MOZIOA

Giza eskubideen ikuspuntutik egoera gordina ari gara bizitzen. Azken asteetan, Josu Uribetxeberria presoaren osasun egoera atzera ezina izan dugu mahai gainean. Legea beteaz, eta berandu bada ere, baldintzapeko askatasun egoeran geratu da preso arrasatearra. Hala ere, ba dira oraindik oso gaixorik eta kartzelan jarraitzen duten presoak. Hamahiru herritar hain zuzen ere. Egoera hau, beren egoera fisikoa eta bere senitartekoen ezinegona okertu eta areagotzea ari da eragiten. Pertsona gisa eta preso gisa zor zaizkien eskubideak ukatuz.

Hamahiru preso gaixo hauek, sufritzen dituzten gaixotasunei behar bezalako jarraipena egitea bateraezina da espetxean egotearekin, honako arrazoi hauengatik: Espetxeak ezin duelako eskaini tratamendu berezituarik; gaixotasun hauek arreta zorrotza behar dutelako; kartzelan egonik, balizko larrialdi baten aurrean erantzunik emateko gaitasun ezagatik; Josu Uribetxeberriaren kasuan, argudio guzti hauek dagoeneko Madrilgo Barne Ministeritzatik ere berretsi dira.

Josu Uribetxeberriaren baldintzapeko askatasunaren ondoren, beste hamahiru dira gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten presoak eta aipatutako argudio berdinak kontutan izanik, kaleratu behar direnak. Hamalau preso eta beraien senitartekoak zigor gehigarria ari dira nozitzen. Preso hauei baldintzapeko askatasuna ukatuz, giza eskubideen oinarrizko zutabeak urratzen ari da Madrilgo arduradun politikoak.

Nazioarte zein estatu espainiarreko araudi, zuzenbidearen printzipio eta giza eskubideen aldeko aldarrikapenek, gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten pertsona presoen eskubideak errespetatzeko beharra adierazten dute. Gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten pertsona horiek, beharrezkoa duten tratamendua eta zaintza medikua behar bezalako baldintzetan jasotzea, oinarrizko eskubidea delarik.

Hau guztia kontutan harturik, honako puntu hauek aurkezten ditugu Osoko Udal Batzarrera, bertan eztabaidatuak eta onartuak izan daitezen:

1.- Udal honek, preso gaixoen egoera larriaren aurrean, bere kezka adierazten du. Era berean indarrean dagoen legea beteaz eta herritarren gehiengoaren borondatearekin bat eginaz, urrats errealak emateko deia egiten dio Madrilgo gobernuari.

2.- Udal honek, nazioarteko eta espainiako legedia oinarritzat hartuaz, gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten hamahiru presoen baldintzapeko askatasuna eskatzen du. Beharrezkoa duten osasun tratamendua baldintza egokietan jaso dezaten eta egoera honek, bai beraientzat zein beren senitartekoentzat ere, zigor gehigarria suposatu ez dezan.

3.- Erabaki honen berri, Madrilgo Barne Ministeritza eta Kartzela Zaintzako Epaileari bideratzea.

Euskal Herrian 2012ko irailean.
Bildu

Teodoro Hernandorena kalea, 6 - 20159 Zizurkil - Tel.: 943 69 10 12 - Fax: 943 69 32 00 - e-posta: zizurkil@udal.gipuzkoa.net
Elbarrena Auzoan: Aurrera Plaza, 3 - 20159 Zizurkil - Tel.: 943 69 30 66 - Fax: 943 69 36 74 - e-posta: bulegoa@zizurkil.com
www.zizurkil.com

ZIZURKILGO UDALA

# ANEXO II

ZIZURKILGO UDALA
2012 IRA. 2 0
SARREREN ERREGISTROA
Zenbakia ..........970..............

## MOCIÓN A FAVOR DE LOS DERECHOS DE LOS PRESOS ENFERMOS

Estamos viviendo una situación muy cruda desde el punto de vista de los derechos humanos. Las últimas semanas hemos tenido sobre la mesa la situación irreversible del estado de salud , del preso Josu Uribetxeberria. En cumplimiento de la ley, aunque tarde, el preso de Arrasate ya esta en libertad condicional. A día de hoy , todavia hay presos gravemente enfermos que siguen en prisión. Trece ciudadanos concretamente. Esta situación esta agravando su estado físico y aumentando la inquietud de sus familiares. Se les están negándo los derechos que tienen como personas y como presos.

El tratamiento y seguimiento de las enfermedades que sufren estos trece presos, es incompatible con su mantenimiento en prisión por las siguientes razones: la cárcel no puede dar tratamiento especializado; estas enfermedades necesitan un cuidado riguroso; la falta de capacidad de dar una respuesta ante una posible urgencia estando en la cárcel; en el caso de Josu Uribetxeberria, se han reafirmado ante el Ministerio del Interior de Madrid todos estos argumentos.

Después de la puesta en libertad condicional de Josu Uribetxeberria, atendiendo a los mismos argumentos antes mencionados, hay que excarcelar a los otros trece presos que padecen enfermedades graves e incurables. Estos trece presos y sus familiares están sufriendo un castigo añadido. Negando la libertad condicional a estos presos, los responsables políticos de Madrid están quebrantando los pilares básicos de los derechos humanos.

Las normas, principios jurídicos y reivindicaciones a favor de los derechos humanos tanto internacionales como del estado español declaran la necesidad de respetar los derechos de las personas presas que tienen enfermedades graves e incurables. Estas personas tienen que recibir el tratamiento y cuidados médicos que necesiten y en las condiciones requeridas, por que es un derecho básico.

Teniendo en cuenta todo ello, presentamos estos puntos al Pleno de este Ayuntamiento para que sean debatidos y aprobados:

1.- Este Ayuntamiento quiere expresar su preocupación ante la situación de urgencia y gravedad de los presos enfermos. Al mismo tiempo insta al gobierno de Madrid a dar pasos reales en el cumplimiento de la ley vigente de acuerdo con la voluntad de la mayoría de este pueblo.

2.- Este Ayuntamiento, teniendo en cuenta las leyes internacionales y españolas, pide la libertad condicional para estos trece presos con enfermedades graves e incurables. Para que reciban los tratamientos de salud necesarios en las condiciones convenientes y que esta situación no suponga una condena añadida para ellos y sus familiares

3.- Este Ayuntamiento comunicará esta decisión al Ministerio del Interior y al Juez de Vigilancia Penitenciaria de Madrid, así como a los medios de comunicación

En Euskal Herria, septiembre de 2012.
Bildu

ZIZURKILGO UDALA

III ERANSKINA

2012ko URRIAREN 21eko EUSKO LEGEBILTZARREKO HAUTESKUNDETAKO MAHAIAK OSATZEA ZOZKETA BIDE.

Zozketa egin ondoren, Hauteskundeetarako Mahaiak honela osatu dira:

ANEXO III

SORTEO PARA LA FORMACION DE LAS MESAS ELECTORALES PARA LAS ELECCIONES AL PARLAMENTO VASCO DEL 21 DE OCTUBRE DE 2.012

Se realiza el sorteo y la formación de las Mesas Electorales resulta como sigue:

| 1 - A MAHAIEKO KARGUAK<br>CARGO MESA 1 - A | HAUTESLEA<br>ELECTOR |
|---|---|
| | |
| **Lehendakaria /Presidente** | **ETXEBERRIA GOIKOETXEA, Miren Lorea** |
| 1. Ordezkoa / 1. Suplente | GARMENDIA IGUARAN, José Manuel |
| 2. Ordezkoa / 2. Suplente | DOMINGUEZ MONTES, Antonio |
| **1. Mahaikidea / 1er. Vocal** | **EL OIKILI LAHCEN, Driss** |
| 1. Ordezkoa / 1. Suplente | BERAZA ALDALUR, Oihana |
| 2. Ordezkoa / 2. Suplente | FERNANDEZ IGARABIDE, José Javier |
| **2. Mahaikidea / 2º Vocal** | **BARROSO ORDOÑEZ, José Luis** |
| 1. Ordezkoa / 1. Suplente | GURIDI SARASOLA, Araitz |
| 2. Ordezkoa / 2. Suplente | DORRONSORO ETXENAGUSIA, María Milagrosa |

| 1 - B MAHAIEKO KARGUAK<br>CARGO MESA 1 - B | HAUTESLEA<br>ELECTOR |
|---|---|
| | |
| **Lehendakaria /Presidente** | **MARTINEZ DE LA HERA, Alvaro** |
| 1. Ordezkoa / 1. Suplente | MATILLA OTEGUI, Iñigo |
| 2. Ordezkoa / 2. Suplente | SARASOLA HERNANDEZ, Jesús |
| **1. Mahaikidea / 1er. Vocal** | **JAUREGUI LANDA, Leire** |
| 1. Ordezkoa / 1. Suplente | ZAPIRAIN LIZARRIBAR, Irene |
| 2. Ordezkoa / 2. Suplente | MARTIN FRAGOSO, Arian |
| **2. Mahaikidea / 2º Vocal** | **SUBIJANA LAZCANO, María Elena** |
| 1. Ordezkoa / 1. Suplente | URQUIZU LARRARTE, Nicasio |
| 2. Ordezkoa / 2. Suplente | MADERA MORENO, Anie |

| 2 - A MAHAIEKO KARGUAK<br>CARGO MESA 2 - A | HAUTESLEA<br>ELECTOR |
|---|---|
| | |
| **Lehendakaria /Presidente** | **AIESTARAN ZINKUNEGI, Ibon** |
| 1. Ordezkoa / 1. Suplente | CARRETERO VIERA, Clemente |
| 2. Ordezkoa / 2. Suplente | BUJAN OTERO, Iban |
| **1. Mahaikidea / 1er. Vocal** | **ARIZMENDI OYARZABAL, María Lourdes** |
| 1. Ordezkoa / 1. Suplente | BARANDIARAN IZTUETA, Felipe |
| 2. Ordezkoa / 2. Suplente | ETXEZARRETA EIZMENDI, Jesús Esteban |
| **2. Mahaikidea / 2º Vocal** | **FLORES CASTIÑEIRA, Jonatan** |
| 1. Ordezkoa / 1. Suplente | ECHENAGUSIA CASTILLA, Ainhoa |
| 2. Ordezkoa / 2. Suplente | JAUREGI LASA, Maite |

ZIZURKILGO UDALA

| 2 - B MAHAIEKO KARGUAK<br>CARGO MESA 2 - B | HAUTESLEA<br>ELECTOR |
|---|---|
| | |
| **Lehendakaria /Presidente** | **LANCETA VICENTE, Jon** |
| 1. Ordezkoa / 1. Suplente | QUINTANA CABALEIRO, Iván |
| 2. Ordezkoa / 2. Suplente | MENDIZABAL LASA, Miren Edurne |
| **1. Mahaikidea / 1er. Vocal** | **PEREZ ORTEGA, Félix María** |
| 1. Ordezkoa / 1. Suplente | MORENO HUERTAS, Fernando |
| 2. Ordezkoa / 2. Suplente | RICO DIAZ, María Teresa |
| **2. Mahaikidea / 2º Vocal** | **RODRIGUEZ SILVA, Darío** |
| 1. Ordezkoa / 1. Suplente | LACARRA ESCORZA, Francisco Javier |
| 2. Ordezkoa / 2. Suplente | LEGARRA AGUIRREURRETA, Ana María |

Teodoro Hernandorena kalea, 6 - 20159 Zizurkil - Tel.: 943 69 10 12 - Fax: 943 69 32 00 - e-posta: zizurkil@udal.gipuzkoa.net
Elbarrena Auzoan: Aurrera Plaza, 3 - 20159 Zizurkil - Tel.: 943 69 30 66 - Fax: 943 69 36 74 - e-posta: bulegoa@zizurkil.com
www.zizurkil.com